




Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1997ko apirilak 10 • 119. zka.

Artzain bizitza

Antonio Astigarra  Itsas Enararen salaketa

**Lankide Aurrezkiaren
Superlibreta
Maiatzak 31**

Superlibreta baten
titularra izateagatik
baino ez.

Maiatzaren 31n zure
Superlibretan 150.000 pta.-
tik gorako saldoa baduzu
eta saldo hori martxoaren
1ean zenuenaren parekoa
edo handiagoa bada,
larruanitzezko Kartera
praktiko bat lortuko duzu.

Gainera, martxoaren 1ean
zenuen saldoa gutxienez
150.000 pta. handitu
baduzu, Nojako
Apartamendu baten
zozketan ere parte
hartuko duzu.

Ikus dezakezunez,
Superlibretak %4rainoko
interesa emateaz gain,
sorpresa atseginak ditu.

Opari zuzena




**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



Bertako produktuak erosten dituzu?

Ion Iñaki Izarzelai
(Langilea)

Bai, normalean bertako barazkiak eta gauza freskoak erosten ditut, bai merkatuan edo denda txikietan bestela. Kalitate hobea eskaintzen dute eta pertsona batzuen biziraupenerako laguntza bat da.



Nerea Arriola
(Langilea)

Saiatzen naiz hemengo produktuak erosten, ez jateko gauzak bakarrik, bestelako produktuak ere bai.

Konfiantza haundiagoa ematen dute bertako produktuek eta merezi du hemengo erosteak.



Lurdes Pagaldai
(Etxekoandrea)

Ahal dudana bertakoa erosten dut. Baina askotan hemengoak direlakoan, kanpokoak izaten dira, fruta esaterako. Hemengo letxugak, porruak... oso desberdinak dira kanpokoekin konparatuta, gus-to desberdina dute, gozoagoa.



Rafa Zamora
(Langilea)

Normalean bertako produktuak erosten ahalegintzen naiz, baina batzutan erosi izan ditut kanpoko produktuak ere.

Okela eta arraina bertakoa erosten dut, konfiantzazkoagoa da.



e s k u t i t z a



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Aurtengo Aste Santuko oporrak ere pasatu dira. Batzuk oporretan joateko aprobetxatu dute: mendira, hondartzara, turismoa egitera... Beste batzuk, aldiz, Aste Santuan Jesusen heriotza eta biztuera ospatu dugu.

Aurten ere Aretxabaletan, beste leku askotan bezala, ospakizun desberdinak antolatu dira: Ostegun Santuan Jesusen azken afaria, Ostiral Santuan heriotza eta Larunbat Santu gau eta Bazko Igandean biztuera gogoratu eta berriro bizitzen laguntzen duten ospakizunak egin ditugu.

Niretzat Ostirala egun berezia izan zen. Lehenengo aldiz Aretxabaletan Gurutz Bidea egin zen Parrokiatik Isurietara. Ez dakit zergatik izan den aurtengoa lehenengoa, baina badakit aurten ez balitz izan, azkar baino lehen izango zela lehenengo aldia, Gurutz Bidean parte hartu zuen jende piloaren irrika haundia baitzen.

Berrehun pertsona baino gehiago elkartu ginen Jesusen bizitzaren azken pausoak gure

Gurutz Bide egin nahian. Aurrean Gurutzea genuen gidari eta Gurutzea eramateko jende asko zegoen zain: Gazte, zahar eta helduek, emakumeek eta gizonek eraman zuten gurutzea geldione batetik bestera. Irakurgai, otoitz eta kantu artean, akordatu baino lehen heldu ginen Isurietako elizara.

Beherantz gindoazela begi alai eta bizi-berrituak ikusten ziren denon aurpegietan. Gure fedea horrelako ospakizunetan eta eguneroko bizitzan sendotzen da.

Egon ginenok bizi izan genuena erakusten saiatuko gara eta egon ez zinetenok datorren urtean ere aukera izango duzue etortzeko, aurtengoa hasiera on bat besterik ez dela izan garbi asko geratu baita.

Bitartean maitasuna eta bakea izan daitezela denon bidelagun.

Aretxabaletako parrokiako partaidea


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz.
Erredakzio-kontseilua: Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izaguirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publikitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroia, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Ur zikinen hodi-biltzailea sartu da Errekabarren eta Loramendi tartean

22 zonaldeko obrak



22 zonaldeko obrak aurtengo urterako bukatzea pentsatzen da

☐ **Errekabarren eta Loramendi elkartuko dituen errepidean ur zikinen hodi-biltzailea sartu da eta orain errepidea egingo da bertan.**

Errekabarren eta Loramendi auzuneak elkartuko dituen errepidearen obrak atzeratu egin dira, Udalak beharrezkoa ikusi baitu errepidea baino lehenago hodi biltzailearen azpiegitura sartzea zati horretan, horrela errepidea osteraz ez aldatzeko. Dagoeneko obra hauekin bukatu da eta errepidea egiteko obrek hasita daude.

Aurrerago ur zikinen hodi-biltzaile hori Eskoriatzatik Bergara bitartean egingo da, urak Eskoriatzan hartu eta Bergaran kokatuko den depuradorara eramanez.

Bestalde, 22 zonaldeko errepidea, espaloia eta lorategiak aurtengo urterako bukatzea pentsatzen da. Planoan ikusi daitekeen moduan, Deba ibaia errepidearen eskumaldera gelditzen da. Erreka eta errepidearen tartean berriz, hiru metro zabalera oinezkoendako zatia doa.

Obrak bukatzen direnean ezker aldeko planoaren itxura erakutsiko du 22 zonaldeak.

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA

Aretxagazetako ez-ohiko batzarra

Martxoaren 21ean udaletxeko Pleno Aretxean Aretxagazeta kultur elkarteko ez-ohiko batzarra egin zen.

Batzarra Estatutuetan elkartearen izenaren aldaketa egiteko deitua izan zen, hortik aurrera, elkarteak aldizkaria baino izaera zabalagoa izan zezan eta herrian sortu daitezkeen komunikabideak elkartean bertan lekua izateko.

Zuzendaritza Batzordeak "Aretxabaletako Herri Komunikabideak kultur Elkartea" izena proposatu zuen. Proposamen honez gain batzarrean

beste bi izen ere proposatu ziren: "Loramendi Komunikabideak Kultur Elkartea" eta "Aretxabaletako Herri Komunikabideak-Loramendi".

Azkenean eztabaida gogor baten ondoren bozketa egin zen eta "Loramendi Komunikabideak Kultur Elkartea" izenak lortu zuen botu kopururik gehien.

Dena dela, Aretxagazetako bazkide batzuk batzar honetan bazkide ez diren batzuk parte hartu zutelako eta ez-ohiko prozedurazko hainbat akats eman zirelako batzarra inpugnatu dute.



Jokuteka ludotekan

Ludotekak "Jokuteka" izeneko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa hau ludotekako bazkide guztiei zuzenduta dago eta bost astetako iraupena izango du.

Joku honetan parte hartzeko ludotekako bazkide izan beharko da. Galderak astero, asteartetan, ludotekan jaso ahal izango dira arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean. Aste osoa utziko da erantzuna emateko, hurrengo asteartean ludotekan utziz. Galderak erantzuterakoan laguntza erabil daiteke, baina hori bai, galderak euskaraz erantzun beharko dira.

Astero zortzi galderak ondo betetzen dituztenek sari bat jasoko dute. Gainera, 25 puntu baino gehiago eskuratzen dutenek sari nagusiko zozketan hartuko dute parte. Puntuaketak ludotekako atean jarriko dira eta azken sariak noiz zozketatuko den alde zuretik emango da jakitera.

Gu ziti hau esanik ludotekak parte hartzera animatzen zaituzte.

Odola emateko egunak

Arabako odol bankukoak osasun zentruan izango ditugu apirilean zehar. Apirilaren lehenean eta 7an hemen izan ziren eta apirilaren 14an ere berriro etorriko dira. Egun hauetan arratsaldeko 4,30etatik 8etara bitartean egin ahal izango da odol ematea.

Bihotza kanpoan zuela jaio zen bildots bat Etxe-zuri baserrian

Galartzako Etxe-zuri baserrian, bihotza kanpoan zuen bildots bat jaio zen joan den astelehenean. Bihotza kanpoan zuen guztiz, hala ere, ibili eta esnea edaten zuen. Etxe-zurikoek jakitera eman digutenez, orain artean ez dute horrelako kasurik izan. Albaitariak, ebakuntzarik egitea ez zuela merezi adierazi zuen. Bildotsa martizenean goizaldera hil zen.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkitekari-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

“Gazte abertzaleak” taldearen hitzaldi informatiboa



Eusko Alkartasunako gazte taldeak hitzaldi informatiboa eman zuen martxoaren 26an alkartetxean (Herriko Plazan). Hizlaria Pello Urizar izan zen, arrasatearra, Euskal Herriko Gazte Abertzaleak taldeko idazkari nagusia.

Hitzaldian, “Gazte Abertzaleak” zer den adierazteaz gain, Aretxabaleta mailan Gazte Abertzaleak talde bat sortzeko dagoen asmoa jakitera eman zen, Euskal Herriko beste herri batzutan moduan.

Gazte Abertzaleak, Eusko Alkartasunaren gazte taldea da. Euskal Herri osoko 30 urtetik beherako gazteek osatzen dute.

Taldeak, independentizialeak, intsumituak, euskarazaleak eta biolentziarik bakoak direla aldarrikatzen du: “independentizialeak gara, ez

garelako ez espainiar ezta frantziar ere, euskaldun izan eta izaten utz gaitzatela nahi dugulako; intsumituak, ez dugulako inongo talde armatutan sinesten; euskarazaleak, euskara babestu eta harrotasunez erabiltzeko garaia badelako; gazteak eta lan egiteko gogoekin baina beti modu egokian, biolentziarik gabe”.

Lore Martinez, Aretxabaletako taldeko arduradunaren esanetan, Euskal Herriaren etorkizunarengatik kezkatutik dauden gazteak dira. “Herri honek etorkizun hobeago bat merezi duelako eta gazteak izanik, gure esku dago gure aberriaren norabidea”.

Norbaitek “Gazte Abertzaleak” taldearekin harremanetan jarri nahi izango balu: Lore 79 48 38.


Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren batzar orokorra

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak urteko batzar orokorra egin zuen martxoaren 21ean. Bertan, aurreko urteko akta eta balantze ekonomikoa irakurtzeaz gain, iazko urteko ekintzen balorazioa egin zuen. Era berean, aurtengo urterako proiektuen berri jakitera eman zen. Herriko bi orkestrek urriaren 31n eta azaroaren 1 eta 2an Estrasburgon izango den Nazioarteko Akordeoi lehiaketan parte hartzeko proiektua aurkeztu zuten. Honez gain, Txanpa, Hondarribiko Akordeoi Orkestra ezagunarekin ere hitzemanda daude truke bat egiteko. Iazko moduan, txikien orkestra Irun Hiria Lehiaketara aurkeztuko da.

Bestalde, Nagusien Orkestrak uztaila bukaeran Italiako Santa Giustina de Belluno hirian egingo den Nazioarteko jaialdian parte hartzeko gonbidapena jaso du. Hori horrela izanik, beraiek hona etortzeko asmoa azaldu dute.

Bukatzeko, zuzendaritza batzordearen aldaketen berri eman zen jakitera.

Batetik, Fidel Iturbe ordurarteko zuzendaria agurtu zuten, egindako lanagatik esker ona jaso ondoren. Bestetik, taldeko partaide berriak aurkeztu ziren: Pedro Mari Azkargorta eta Miren Lasagabaster.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

JOSE MARI

bodegoia

< Eguneko menua
< Bataioak
< Jurnartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETAKO

PAGALDAI

Opari denda


Durana, 33 • 79 10 14
ARETXABALETAKO

◆ Parrila
espezialitatea



GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABALETAKO • 79 68 57



EGUZKIGRAF

inprimategia



Industriaidea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

Itsas Enara ornitologi taldea Urkulun egin den landaretza garbiketaren aurka azaldu da

❑ Hegaztiak ikusteko bi behatokiak leku desegokietan jarri ei dira

Itsas Enara, Gipuzkoako ornitologi taldea, Diputazioak Urkuluko ertz batean egin duen landaretza garbiketaren aurka azaldu da. “Zuhaitzak landatzeko helburuaz -ornitologi talde honen adierazpenetan- Foru Aldundiak Koruetan ur bazterreko landaretza kendu du, hegazti txikiendako leku apropos bat hondatuz”.

Bestalde, Foru Aldundiak hegaztiak ikusteko bi behatoki jarri ditu Urkulun. Itsas Enara taldearen ustetan ez dira leku egokian jarri.



Itsas Enarak ingurua ahal den heinean berreskuratzea eta aurrerantzean antzeko egoerak gerta ez daitezen eskatzen du

Hainbat egunkaritan azaldu dira Foru Aldundiak Urkulun izan duen jokaera salatzen duten artikulatuak. Itsas Enara, Gipuzkoako ornitologi taldeak egin ditu salaketok. Urkulun egin den landaretza garbiketak, bertako hegaztientzako duen eragina salatzen du. “Hegaztientzako janaria bilatzeko, ugalketarako eta babeserako leku egokia zena hondatu da” -azpimarratzen du Gorka Gorospe Itsas Enarako lehen-dakariak.

Foru Aldundiak lekua hezitu du eta zuhaitzak landatu nahi ditu bertan. Landaketa heterogeneo baten lekuan landaketa

artifizial homogeneo bat ipini nahi dutela dio Gorospek, eta hori kaltegarria dela Urkuluko hegazti txikiarentzat. “Urkulun dauden hegazti mota desberdinek landaretza aberatsa, desberdina eskatzen dute. Landaketa artifizialak espezie gutxi batzuk bakarrik erakarriko ditu”.

Guzti horregatik Itsas Enara taldeak hainbat egunkaritan egin du publiko salaketa hau. Era berean, Foru Aldundira idatzi bat bidali du euren desadostasuna azalduz. Ahal den neurrian ingurua berreskura dadin eskatuz eta aurrera begira antzeko ekintzak gerta ez daitezzen.

Hegaztiak ikusteko bi behatoki

Hegaztiak ikusi ahal izateko bi behatoki jarri dira Urkuluko urtegiaren. Itsas Enara taldearen esanetan horietako bat ez dago leku aproposenean jarrita. “Ur sakonena dauden lekuan jarri da bat, eta ur hegazti gutxi ibiltzen da bertan”.

Horretaz gain, hobeto ezkutatu beharko liratekeela ere gehitzen du.

Inguru aberatsa

Urkuluko ingurua, bere landaretza eta ezaugarriekin leku aproposa da hegaztientzat. Ikusi besterik ez dago, azken urteotan Urkuluko urtegiaren

inguruan pilatu diren ur-hegazti eta bestelako hegazti guztiak. Itsas Enarak, urtero aztertzen eta zenbatzen ditu bertako hegaztiak. Aurtengo neguan esaterako 1277 ur-hegazti zenbatu ziren.

Baina Urkuluko urtegiak eskaintzen dituen ezaugarriak kontutan hartuta, hegazti txikiarentzat da batez ere garrantzitsua. Zelai, sasi, zuhaitz eta zuhaixkak osatzen duten inguru heterogeneoa, hauen ugalketarako, babeserako eta elikadurarako egokia da. Itsas Enarak, 80 espezie desberdinetik gora aurkitu ditu bertan: Buztangorriak, Txinboa, Berdantza, Antzandobiak....



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Antonio Astigarraga

“Jendea momentu guztietan gertu egon zen gurutzea eramateko, eta hori positiboa dela uste dut”

Aste Santua pasatu berri dugu. Gure herrian ere hainbat ospakizun burutu dira, horien berri izateko Antonio Astigarraga parrokoarengana jo dugu. Aste Santuko ospakizunez gain gizarte sekularizatu honek ekarri dituen ondorioez ere egin dugu berba.



Antonio Astigarraga
parrokoa

• **Antonio, zer moduz bizi izan duzu Aste Santuko Kristau ospakizuna?**

Egia esan, hemen egin diren ospakizunak leku guztietan antzera egiten dira. Komisioko liturgiarekin komentatu ondoren gauzatxo batzuk aldatu egin genituen. Berrikuntza moduan Gurutz-Bidea, lehenago elizan bertan egiten zena kaletik Isurietara egin genuen.

• **Eta zer moduz urten zuen esperientzia berri horrek?**

Nik uste dut oso polita izan zela. Jendeak ondo erantzun zuela esan behar da, 200 lagunetik gora izan ziren eta 90 urtekoak ere baziren horien artean. Megafoniarekin arazotxo batzuk izan genituen. Horretaz gain, jendeak azkarregi ere joan nintzela esaten zuen.

Jendea momentu guztietan gertu egon zen gurutzea eramateko eta hori

positiboa da.

• **Jendeak ondo erantzun zuela esan daiteke orduan. Nola bizi du jendeak Gurutz Bidea?**

Gurutzeak garaitutako samina esan nahi du eta jendea ez zaio kostatzen Jesusen gurutzearekin bat egitea. Azken finean Jesusen bizi izan zituen sufrimenduak zureganatzen laguntzen du. Bakoitzak bere asmoak izango zituen.

Gizarte demokratiko batek aukera ematen dizu betikotasunetik urten eta horrelako ekintzak egiteko, eta hori elizarentzat ere positiboa dela uste dut.

• **Gurutz Bideak izan duen erantzuna ikusita, datorren urtean osterarepikatzeko moduan zaudete?**

Bai, jendea orokorrean gustora gelditu zela uste dut. Datorren urtera begira megafonia arazoak kon-



Kaletik Isurietara egin zen Gurutz Bideak partaidetza haundia izan zuen

pondu beharko dira eta kantu ezagunagoak sartu agian.

• **Gainontzeko ospakizunak zer moduz joan ziren?**

Larunbat Santu gaueko ospakizuna oso polita izan zen, herrikoia. Jendearen parte hartzea haundiagoa izan zen Ostiral Santuko ospakizunean baino. Azken hau, oso solemnea izan zen, koruak oso ondo abestu zuen baina herriarren ahotsa bota nuen faltan.

• **Herri gehienetan berdintsu ospatzen direla esan duzu Aste Santuko ospakizunak. Desberdintasunik antzeman duzu gure herrian?**

Ospakizun gehienak antzekoak izan arren, Aretxabaletako elizkizunetan abesbatzak asko laguntzen duela konturatu naiz. Abesbatzak berezitasun bat ematen die ospakizun

horiei.

• **Zergaitik ez da hiletarik egiten Aste Santuan?**

Jesusen heriotza eta piztuera ospatzen ari garelako. Horregatik, guri piztuera eman digunaren heriotza eta piztuera ospatu ostean, ospatuko dugu besteona.

• **Sekularizazioaren ondorioz, Aste Santuak bere erlijiotasun zentzua galdu egin du gizartearen. Zer duzu esateko gai horren inguruan?**

Pluraltasunaren aurrean, Jainkoaren aurrean ere erabaki bat hartu behar da. Askotan oportetara joaten gara eta Kristau bizitzaz ez dugu ezer jakin nahi, baina bizitzako beste aspektu batzutan Jainkoaren eta elizaren zerbitzua nahi dugu, ezkontzeko, bataiatzeko... Arlo horretan konsekuente izatea garrantzitsua da.

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05

ARETXABALETA


T
X
i
L
A
R
R
A



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

Gure artean oso ezaguna den txori bati buruz hitzegitera goaz oraingoan. Urteetan zehar gizakion inguruan bizi izan denez, txori hau mirestera heldu gara eta bere inguruan hainbat sineskeria, esamolde eta leienda eraiki ditugu.

Taldea: Hegaztiak

Familia: Hirudinidae

Izen zientifikoa: Hirundo rustica

Beste euskal izenik: Ainara

Luzera: 20 zm

Pisua: 18 gr



Itzuli da enara

Oso txori estilizatu dugu enara. Smoking-ez jantzirik ibili ohi da hegan, aurpegia eta lepoa gorriak baditu ere. Hegoak nabarmen luze eta meheak ditu, hegaldi luzeetarako bereziki prestatuak, beraien beharra izaten du eta Afrika aldera egiten dituen bidaietan.

Enararen ezaugarriak aipatzen ari garelarik, ezin alde batera utzi urkila itxurako buztana, bi punta zorrotzez apaindurikoa.

Kantatzen baldarra bada ere, sarri ikusiko dugu kable gainean pausatuz txorrotxio eta piukadak askatzen. Dena dela badu trebeziarik ere, esate baterako buztinez eta lumaz egiten duen kopa itxurako habia, arkitekto batek egin lezakeen lanik onenaren parekoa. Bere espezieko beste aleekin batera komunitateak eratzen ditu, ia beti gizakiaren eragina nabarmena den tokietan biltzen direlarik, hala nola, herrietan, baserrietan,... Kabi horretan lauzpabost arraultze errungo ditu bi astetan zehar, baina hurrengo hogei

egunetan ere kumeen zerbitzuan ibiliko da.

Baina San Migel egunerako, enarak alde egin ohi du toki epelagoetara, Afrika tropikalera hain zuzen ere, eta Aste Santu honetan bueltatu zaigu Aretxabaletara. Galiziarrek *anduriña* izena jarri diote (ibiltaria), baita leien-darik asmatu ere bere inguruan. Euskal Herrian ere animalia oso maitea bihurtu da, ikusi besterik ez dago zenbat alabari ipini zaion *ainara* izena.

Antzerako txoriak

Enar-azpizuria, enararen lehen-gusua izanik, gizakiaren lagun haundia da hau ere. Gure gaurko protagonista baino txikiagoa da (14 zm eskax), eta aurpegi eta atzekalde zuria dauzka, enarak ez bezala. Buztana apaintzen duten punta luzerik ere ez du ageri.

Sorbeltza, maiatzetik uztailera gure artean izan ohi den txori guztiz iluna da. Kopuru haundietan bizi dira eta denborarik gehiena airean pasatzen du.

Mikel Arroia

Artzainaren ofizioa

“Gregorio, Txino eta 90 ardi”



Bazen behin, goizean jaiki eta eguzkia ezkutatu arte bere lanean tinko aritzen zen artzain bat. Bakardadea eta Txino bere txakur zaharra lagun zituela, Larrinuko zelai zabaletan ibiltzen zen egunero. Batean hona, bestean hara... beti zeregin berri batekin.

Halako batean, artzainak bi “sasikazetariekin” topo egin zuen. Hauek grabadora eskuan zutela galdera pilo bat egiten hasi ziren. Artzainak harrituta erantzuten zituen galderak, pertsona haien jakinmina zerek bultzatzen zuen asmatu ezinik.

Ipuina dirudien honetatik, artzain izatearen ofizioa aztertu nahi izan dugu, bide batez omenaldi txiki bat eskeiniz lanbide gogor honetatik bizi diren pertsoneri.

Gregorio Arejola dugu gure “ipu” honetako protagonista, jaiotzez oñatiarra, “Erguin” baserrikoa. Bertatik datorkio ezizena. Artzantzarekin bere lehenengo hartuemanak 12 urterekin izan zituen. Batetik bokazioak eta bestetik aitaren heriotzak bultzatu zuen Erguin artzain bizitza aukeratzera.

Mutil koxkorra zela bizi izan zituen artzain izatearen zenbait poztasun eta atsekabe. Artaldeak hartu eta Degurixara joaten zen, bertan zuen txabola txiki batera. Han igarotzen zituen egun eta gauak, Lazkao Txikiren bertsoen konpainian. Erguinen arabera


Lazkao Txikik bere bertsotan ongi islatzen zituen artzainaren bizitzaren laztasunak “artzain bizimodua baino kartzelakoa ez ote den hobe izango” esaten zigun Erguinek bertso horietako hitzak gogoratuz.

Erguinek 71 urte gainean dituela eta jubilatua izan arren, ez dauka bere betidaniko afizioa uzteko asmorik “artzain lana hasi eta akabatu artekoa da, ez da jubilatzerakoan uzten. Enpresetako langileak amorratzen dauden bitartean lana uzteko, ni bezalako artzain batek bizi osorako dauka eginbehar hau”. 59 urte luzetan zehar ibili da Gregorio artzain, eta zerbaitek tris-

tetzen badu, bere ofizio hau jarraituko duen oinordekorik ez izatea da. Hala ere, ulertzen du nolabait, gaur egungo gazteek aukera gehiago dutela berak bezain gogor lan egin gabe aurrera jarraitzeko. Artzain lanak ez du irabazi haundirik ematen, beraz artzainak “ekonomilari” ona izan behar du jasotako diru apurra mantentzeko.

Artzain lana sasoika

Gregoriok ez du oporraldirik izaten. Urte osoan zehar banatzen da bere eginbeharra. Udaberrian hasten da lanik astunena, bildotsak jaiotzen diren garaia delako. Artzainak argi egon behar du ardía



Artilea sei pezetatan saltzen du Erguinek

erditzen hasten den momentuan, arrisku handia dago-eta bildotsa galtzeko. Eguraldiari dagokionez, hau alde edukitzea oso garrantzitsua da arazoak ekiditeko. Sasoi honetan ardiak etxean egoten dira zelaietako belarra janaz, artzaina larrera jeitsi eta artaldea kontrolatzen aritzen den bitartean.

Maiatza heltzen denean Gregoriok artaldea bildu eta Degurixara joaten da azarora arte. Bertan, goizero goizero ardiak batzea du lanik nekezena. Jasotako esnearekin San Kristobalak arte gaztaiak egiten ditu, eta San Juan eta San Pedro festak bitartean berriz, ardiei ilea mozten pasatzen ditu egunak. Horrez gain, bere txabola epeltasunean mantetzeko

**“Ni aske
sentitzen naiz
mendian,
beste inon
aurkituko ez
dudan
askatasuna
daukat
bertan”**

beharrezkoa den egur kopurua mozten du. Negua etxean igarotzen du, berriz ere udaberrira begira.

Dituen jai egun bakarrak inguruko ferietara joateko aprobeztatzen ditu, Agurainera, Urkiolara... Bertan, beste artzain batzuk egindako gaztak dastatzen ditu. Berak berriz, Aretxabaleta inguruko taberna, merendero eta etxe partikularretara saltzen ditu. Esan digutenez kalitate haundiko gaztaiak dira Gregoriorenak... probatu egin behar.

Gaztaiak aparte, artilea ere saltzen du Gregoriok. Garai batean, artilea aprezio haundikoa zen jendearen artean, erabilera ugari ematen zitzaion-eta. Hauen artean: koltxoi barrenak betetzeko, arropak egiteko... Gaur, produktu honen salmentak ez du irabazi haundirik ematen, jada koltxoien kasuan ez da-eta artilerik erabiltzen. “Flex koltxoa delakoa dago orain etxe guztietan, askoz erosoagoak dira”. Artilea sei pezetan saltzen du, baina garai batean bi pezetan ere saldu zuen.

Bakardadea artzainaren lagun

Gregoriok zazpi hilabete igarotzen ditu mendian bakarrik. “Zortzi egun ere pasatu ditut inortxorekin berba egin barik, gogorra da, baina horrenbeste urte lan honetan eman ondoren ohitu egin naiz. Ni aske sentitzen naiz mendian, beste inon aurkituko ez dudan libertatea daukat bertan”. Bere bakardadea 90 ardi eta Txino bere txakurrarekin igarotzen du. Noizean behin gainera, herrira jeisten da elikagai bila eta Degurixan hainbeste denboran ixilean gordetako hitzak askatzeko parada izaten du orduan.

Artzainaren bizimodua, gogorra bezain lotua da. Horregatik dago gero eta artzain gutxiago. Ogibide hau ez da gu bezalako jende mekanizatuarentzako, ordulariaren horratzek eginbehar guztiak markatzen dizkionarentzako ez eta fabrika baten zortzi orduz jarraian pieza berdinekin bueltaka dabile-



Gregorio esnea batzeko makinan eserita



narentzako. Gero eta artzain gu-
txiago dago inguruetako baso eta
zelaietan, gizarteko dinamika azkar
honek gero eta zailago egiten due-
lako ogibide apal honen iraupena.
Gregoriok behin baino gehiagotan
errepikatu zuen honakoa: “Bertso-
lariak berezko etorrera bat duten
bezala, artzain bizitza aukeratzera
bultzatzen gaituen erabakia berez-
koa da, jaiotzatikan dator”.

Gure protagonista, beldurrez
zegoen bere ustez erreportaia honek
ez baitzuen benetako artzain baten
bizimoduan islatuko, eta gomendio
bat luzatu zigun: “joan zaitezte
Degurixara 20 bat ardirekin. Orduan
gerturatuko zarete artzain bizitza
zertan den ikustera”. Beraz, hau
entzunda, gu ere zuengana zuzen-
tzen gara, zuotako edonori erre-
portaia honi begirada bat eman
ondoren zalantzaren bat gelditzen
bazaizue, anima zaitezte 20 bat
ardirekin hilabete Degurixan
pasatzera. Animatu ezkeror eraman
badaezpada “Su ta Gar”en zinta bat,
bakardade hori eraman errazagoa
egiteko.

Amagoia Lasagabaster
Andoni Arana

**“Artzain bizitza aukeratzera bultzatzen gaituen
erabakia berezkoa da, jaiotzatikan dator”**

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**KIXKOR
TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

Ikasturte honetan ALMENeko Derrigorrezko Bigarren Mailan 1. zikloan (12-14 urte) aukeragarritasunean "Komunikazioa" hautatu dute hainbat ikaslek. Lehenengo lauhilabetean "fotonobela" gaia hartuz, prozedura hauek landu dituzte:

- Istoriotik gidoira
- Argazkilaritza
- Diseñoa (Macintosh)

Lan guzti horren emaitza dugu 4 ataletan banaturik aurkezten dizuegun fotonobela hau. Ikasleak egiten bezainbeste goza dezazuela, irakurleok, istorio hau irakurtzen.



NEREA ETXEBERRIA



MIRIAN CAMPO

Idea, gidoia, argazkiak eta diseinoa:

ALMENEKO 1. D.B.H. ko IKASLEAK

Aktoreak:

Monika: MARIAN ZUBIZARRETA
Nahia: NEREA ETXEBERRIA
Itsaso: MIRIAN CAMPO
Gorka: HARITZ IGARTUA
Edurne: OIHANA AREJOLALEIBA

LAPURRETA IKASGELAN

Nahiaren lehenengo eguna da ikastetxe berrian eta harantz doa...



Eskaileratan gora ...







Nahiari bandeja
botako diot .




AAA!



Tori!

Zer
gertatuko
ote da
hurrengo
atalean ?



Eraña-Alzola bikote atxabaltarra finalerako klasifikatuta gelditu zen

Deba arroako pelota txapelketa

Deba Garaia eta Beheko herriak Deba arroako pelota txapelketa jokatzan ari dira. Apirilaren 4an semifinalak jokatu ziren Iturrigorri frontoian. Hiru partidu izan genituen eta finalerako Aretxabaletako talde bakarra klasifikatu zen: Eraña-Alzola hain zuzen ere. Azkenengo partidu honetan galdu egin bazuten ere, aurretik ateratako abantaila haundiagoa zenez, aurrera pasatzea lortu zuten. Bikote honek Bergarako Muguruza-Redondo pelotarien aurka jokatu du finala Arrasaten.

Jubenilak eta seniorrak, ahalegin guztiak egin arren, ez ziren finalerako klasifikatu. Emaitzak hauexek izan genituen:

Kadeteak:	
Eraña-Alzola	18
Elgeta	22
Jubenilak:	
Lasagabaster-Bengoia	9
Heriz-Arrieta	22
Seniorrak	
Errasti anaiak	22
Ubeda-Elorriaga	18

Fran Migelek gipuzkoar onenaren saria jaso zuen

Ostera ere berri onak ekarri dizkigu Fran Migel xake jokalaria. Aste Santuan, Donostiako Xake Openean gipuzkoar onenaren saria jaso zuen. Hurrengo astean, berriz, Euskadiko txapelketa jokatu zuen, azken honetan seigarren postua lortuz. 30 lagunek parte hartu zuen txapelketan eta bere aurretik gelditu ziren guztiak jokolari profesionalak izan zirela esan beharra dago. Ostera ere xakean duen maila ona erakustera eman digu atxabaltar honek.

Arlutz saskibaloi txapelketa

Apirilarekin batera Arlutz saskibaloi txapelketa jokatzan hasiko da. Bost taldek besterik ez dute izena eman: DDK, Kemen, Quo Vadis, Difunto Arevalo eta Basotxo Split. Oraindik ere apuntatzeko epea zabalik dago, partiduak apirilaren 12an hasiko dira-eta. Izen ematea 3.000 pezetakoa da.

Aretxabaletako industrialdea, S.A.

"ARINSA"

Basabe poligonoa "EO-10"
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA



Amaia-Berri, S.L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Euskal Herriko txirrindulari itzulua

- Biharko etapa, heritik pasatuko da goizeko 11,30ak aldera
- Arratsaldean erlojuz kontrako proba Arrasatetik Gatzagainera egingo da 3,30etan hasita



Bai goizean eta baita arratsaldean ere, Otalora, Durana, Mitarte eta Araba Ibilbidea kaleak itxita egongo dira txirrindulariak pasatzen diren bitartean

Euskal Herriko txirrindulari itzuliak Leintz Bailaran emango ditu azken urratsak bihar. Alde batetik, goizeko etapa, Sopuertan (Bizkaian) hasi eta Arrasaten bukatuko da. Etapa amaierara heldu aurretik, 11,30ak inguruan Aretxabaletako kaleak (Otalora, Durana, Mitarte eta Araba Ibilbidea) zeharkatuko dituzte txirrindulariek.

Arratsaldean, erlojuz kontrako proba burutuko da Arrasateko Fagorretik hasi eta Gatzagainera bitartean. Azken proba hau oso garrantzitsua eta erabakiorra izango da, bertan erabakiko baita itzulua. Kasu honetan ere, Durana kaletik gorantz pasatuko dira txirrindulariak banan banan. Proba 3,30etan hasiko da eta txirrindulariek 12,5 km egin beharko

dituzte erlojuaren kontra, azkenengo zatia gainera Gatzagako maldetan gora.

Oraingo honetan behintzat aukera ederra izango dugu txirrindulariak ikusi eta hauek animatzeko. Gatzagara joango direnak ere asko izango dira. Itzuli honetan parte hartuko duten txirrindulari ezagunen artean: Ullrich, Olano, Jalabert, Berzin, Pantani, Virenque, Rijs, Zulle, Casagrande, Tonkav... ditugu.

Kaleak itxita

Biharko egunean goizez eta arratsaldez herriko kaleak zeharkatuko ditu itzuliak. Hori dela eta, tarte horretan, Otalora, Durana, Mitarte eta Araba Ibilbidea kaleak itxita egongo dira.

FUTBOLA

UDA 3.postuan mantentzen da

Preferente mailako UDA ligako aurreneko postuetan mantentzen da. Momentu honetan hirugarren dago klasifikazioan azkenengo partiduan hondarribitarren aurka 4-3ko emaitzaz nagusitu ondoren. Partiduko goleatzaileak: Etxebarria, Kepa, Xabi eta Ingidua izan genituen. Azken honek penalti bidez sartu zuen gola. Golez betetako partidua izan zen. Atxabaltarrak azkenengo minutuetararte 4 eta 1eko emaitzaz nagusitzen joan ziren eta aurkariek azkenengo 13 minututan gol bi sartu zituzten. Honek etxekoan artean urduritasuna sortu bazuen ere, azkenik garaipena etxean gelditu zen. Momentu honetan UDA 3. postuan dago klasifikazioan 54 punturekin, lehenengotik 9 puntutara. Universidad doa aurrea eta Mutriku jarraitzen dio. Datorren partidua kanpoan jokatu du eta Zestoa izango du aurrez-aurre. Azken hau indartsu dago 5. postuan. Oraindik beste zortzi ihardunaldi gelditzen dira liga bukatzeko, maiatzaren 25ean jokatu baita azkenengo partidua. Ordurarte aurreneko postu horietan gora egiten ahalegindu beharko dute.

LASA AGUILERA
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK


Euskadiko Kutxa
Taldekoka

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



Goizetan ONCEko kupoiak saltzen ikusten dugu Alvaro Astier. Donostiarra dugu izatez baina bi urte daramatza Aretxabaletan bizi. Gustoko du gure herria, bertako jendea atsegina eta zabala dela esaten du.

• **Nola hasi zinen lan honetan?**

Orain bederatzi urte hasi nintzen ONCEn lanean. Kotxe istripu bat izan nuen eta Prodiecun hasi nintzen lanean. Taldea desegin egin zen gero eta bertako langile batzuri ONCEn hartu gintuzten.

• **Non ibili zara kupoi saltzen?**

“ONCEko langilea ez banitz izango, elektronikoa izatea gustatuko litzaidake”

Lasarten, Irunen, gero Zumaian eta azkenik hemen.

• **Asko saltzen duzu?**

Ezin naiz kexatu. 400-500 inguru saltzen ditut egunero. Goizean 5,30etan Coprecira joaten naiz, gero kalean saltzen dut eta arratsaldean Arrasaten.

• **Betiko bezeroak dira?**

Bai, normalean bai.

• **Tokatu da saririk zuk saldutako boletoetan?**

Behin, 50.000 pezeta.

• **Ezkonduta zaude?**

Ez, soltero eta konpromezu barik.

• **Zelakoa da Aretxabaletako jendea?**

Hemengo jendea oso atsegina da, zabala, solidarioa.

• **Nora joan zinen azken aldiz oporretan?**

Orain lau urte Mallorcara.

• **Euskaraz badakizu?**

Ez. Gustatuko litzaidake ikastea bertan jaiotakoa naiz eta. Denbora gutxi dut.

• **Zer egiten duzu denbora librean?**

Ez daukat afizio berezirik, telebista ikusten dut.

• **Zer programa gustatzen zaizu telebistatik?**

Pelikulak gehiena, baita informatiboak ere. Orokorrean dena gustatzen zait.

• **Kirolak praktikatzen duzu?**

Ez, orain ez. Istripua izan aurretik futbola, pelota, hokeya.... Orain gaizki ibiltzen naiz edozein kiroletan.

• **Zein kirol duzu gogoko?**

Ikusteko pelota asko gustatzen zait.

• **Nolakoa da zure izakera?**

Orokorrean pertsona lasaia eta alaia naiz.

• **Zergatik borrokatuko zenuke?**

Bizitza lasai bategatik.

• **Non bizi zitea gustatuko litzazuke?**

Bizi naizen lekuan. Jendeak onartzen nauen leku batean.

• **Animalia bihurtzekotan, ze animalia?**

Txoria, libre izateko.


• **ONCEko langilea ez bazina zer izatea gustatuko litzazuke?**

Elektronikoa. Istripua izan nuenean elektronika ikasten ari nintzen eta utzi egin behar izan nuen. Gero saiatu naiz ikasketekin jarraitzen baina ezin izan dut bukatu.



Marrazkiak: Mikel Arroiabé

loramendi
euskera elkartea



uskal Herriko txirrindulari itzulia burutzen ari den aste honetan, guk ere txirrindulari gaztetxo hauen argazkia aukeratu dugu kontu zaharretako atal honetarako.

1.972. urtean, UDAko txirrindulari taldeko kide batzuk eta "Farias", orduko UDAREN talde animatzailea, gaztetxoei entretenimendu bat eman eta kirolerako motibazio bat sortu asmoz, txirrindu karrerak antolatzen hasi ziren. Hiru urtetan zehar egin ziren. Hemendik lehenengo txirrindulari eskolak jarri ziren martxan Gipuzkoan, "Zona Alto Deba" hemengo eskola esaterako.

Baina eskolak sortu aurreko argazkia duzue begibistan. Loramendi auzoan egin ziren lehen karrera hauek. Luis Mari Otxoak, kaleen egoera txarra zela gogoratzen du eta grabila kentzen ibili zirela zati batzutan. Izan ere, lan asko eskatzen zuen antolaketak, kartelak atera, zirku itxi, sariak... Honez gain, urte hartan beste zortzi karrera ere egin ziren. 8urtetik 14ra bitarteko gaztetxoek parte hartzen zuten, hiru kategoriatan banatuta: benjaminak, alebinak eta kadeteak. Mutikoek ilusioz eta gogo haundiekin korritzen zuten, desiatzen egoten ziren karrerak noiz hasiko. Garai hartako bizikletak ez zuten gaur eguneko antzirik, baina hori ez zen oztopo mutikoentzat. Udaberri eta uda aldera antolatzen ziren. Argazkian ikusten den moduan afizio haundia sortzen zuten, jendetza haundia pilotzen zen. Orain ere honelako karrerak antolatu egin beharko lirakeela esaten jarraitzen dute norbaitzuk.

Argazkia Gorbea kalean aterata dago. Irabazleak, ezkerretik hasita: **Migel Mateo, Luis Agirre** eta **Paulo Otxoa** dira. Hirurek, kopa, medaila eta lora erramua jaso zuten. Orduan hain ezaguna zen "Kas" etxearen izena daramate kamisetan, etxean jositakoa jakina.



Argazkia: Luis Mari Otxoa

Informazioa: Luis Mari Otxoa

Mitartegarai
Zatetxea

- Nekazaliturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

Lie

Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 • 79 38 59

LEIBAR
ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

Hau nagikeria



Eguraldi bero honek eta pasatu berri ditugun oporrak lehenagotik lanerako neukan gogo apurra kendu didate eta hemen aurkitzen naiz zerbait idatzi beharrean eta boligrafoa mugitu ezinik. Eskerrak beste batzuei oporrak kontrako eragina egiten dietela eta indarrez beteta bueltatzen direla.

Ezkutu tabernakoei adibidez, eta ez da propaganda egiteagatik, primerako astebukaera pres-tatu digute herrian gelditzeko asmoa dugunoi. Egua-kotxean gaueko 11etan bertsolariak: **Igor Elortza, Ion Maia, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga.** Zapatuan, berriz, antzerkia **Oihulari Klown** taldearekin. Emanaldi hau **Askagintzak** antolatu du.

Beraz, atsegin duzuenok badakizue nora joan. **Aretxabaletako Talde Antimilitarista** ere gogor dabil. Haritz bat landatu dute Urkulun intsumiso presoen oroimenez. Ikusi gura duenarentzat Zuatzu

baserriaren azpikaldean dago. Norbaitek ura bota beharko dio, bestela bero honekin...

Aretxabaletako akordeoi orkestrak, zuzendaritza batzordean aldaketak egin ditu. **Fidel Iturbek** irten du eta **Pedro Mari Azkargorta eta Miren Lasaga-baster** izan dira sartu direnak. Aurrerantzean hauek arduratu beharko dute taldearen martxa bikaina mantentzen.

Apirilaren 17rako Loramendi elkarteak antolatu duen diapositiba emanaldia ere bikaina izango da. **Alberto Etxebarriak** Butan, Bengala, Orissara eta Sikking (India) lurraldeetan egindako ibilaldiak jakitera emango dizkigu. Munduko txoko eta jende ezezagunenak ezagutzeko aukera ederra izango da.

Bikain dabilen beste bat **Fran Migel** da. Gipuzkoako Donostiako Xake Openean Gipuzkoar onenaren saria jaso zuen eta gero Euskadiko txapelketan seigarren geratu zen. Aurretik gelditu ziren guztiak profesionalak izan ziren, beraz, zorianak! Martxa honetan Aretxabaletak laister eduki dezake xakeko "maixu haundi" bat.

Kirol kontuekin jarraituz, aurten ere **Iñurra-tegitarrak** zortzimilako berri bat igoteko asmoarekin dabilta. Maiatzean Karakoramera abiatuko dira **Broad Peak** igotzeko. Ea aurten, azkenengo urteetan baino "suspense" gutxiagorekin lortzen duten euren helburua.

Bueno, dagoeneko leher eginda nago eta hurrengorarte.

LANA

- Andereino diplomatuak klase partikularrak eman-gio lituzke (BO2 arte). Tfnoa: 79 75 23.

- Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsalde edo gauez. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).

ETXEBIZITZA

- Garajea alokagai dago Lausita 5. zenbakian. Tfnoa: 79 05 38 (dendako ordutegia).

- Garajea salgai dago Lausitan. Tfnoa: 79 80 72. Deitu ordu 2etatik 6etara.

- Aretxabaletan lokal kon-partitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.

- Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

DENETARIK

- Lur hiztegi entziklo-pedikoa salgai dago, estrenatu barik. Tfnoa: 79 78 26. (goizez 10etatik ordu letata, arratsalde 4etatik 9etara).

- Opel Ascona markako kotxea salgai. Ate bikoa, egoera onean eta prezio ekonomikoan. Tfnoa: 79 43 05.

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira.

Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen bu-zoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.

**ZINEA****SPACE JAM****ZUZENDARIA:** Joe Pytka**AKTOREAK:** MichaelJordan, Stan Podolak
(Wayne Knight), Juanita
Jordan (Theresa Randle),
Larry Bird, Bill Murray.**SPACE JAM**

Bugs Bunnyk bere lagunak Looney
Tunesak arazo baten sartu ditu, Nerdluks
espazioko piztien aurrean. Azken hauek,
Looney Tunesak bahitu eta euren
espazioko txokora eraman nahi dituzte.
Bunnyk saskibaloi partidu baten bidez,
desafio batera gonbidatzen ditu. Looneyak
irabazten badute lurrean geldituko dira,
galtzen badute besteen menpe geldituko
dira. Bunnyk Michael Jordani laguntza
eskatu beharko dio desafio honetan.

Z A R A I A Z I N E M A

Apirilak 11, 12, 13, 14

SPACE JAM

Apirilak 18, 19, 20, 21

UN DIA INOLVIDABLE

Apirilak 20

MATILDA**Ordutegia:**

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

ANTZERKIA**DENA KLOWNTROLPEAN**

“Juventud divino tesoro” esaera eta
boterearen inguruko parodia.
“Kilima” eta “Parraxio” baimenik
gabe burutzen ari den bilera bateko
ikuslegoa kanporatu nahi duten
agintari inkompetenteak dira. Klown
jolasaren irudimenetik, samurtasu-
netik eta umoretik gaur egungo gaz-
teriaren ardura nagusienak azalduko
dituzte, langabezia, drogak,
erreprezioa, aisialdia eta abar hain
zuzen; gainera, dena Klowntrolpean
daukatela ikustaraziko dute.

Egile eta zuzendaria: Virginia Imaz**Klownak:** Idoia Azkarate eta Melo Ruiz (Kilima eta Parraxio).**Lekua eta ordua:** Apirilaren 12an Ezkutu tabernan arratsaldeko 7,30etan.**Antolatzailea:** Askagintza**Liburutegiko
txokoa****Haur eta gazteendako
euskarazko liburuak:**

Apirilaren 2an Haur

Liburuaren Nazioarteko

Eguna ospatzen zen eta bide
batez Udal Liburutegian
sartu diren liburuen berri
eman nahi dugu.

Euskarazko liburu mordoa
sartu da eta hauen artean
hamaika aukeratu ditugu:

- **Denboraldi bat ospitalean**
Juan Kruz Igerabide

- **Pippi itsasorako asmotan**
Astrid Lindgren

- **Xola eta basurdeak**
Bernardo Atxaga

- **Larunbatetan euria**
debekatua

Maite Carranza

- **Txokoloski. Dibertigarria**
da txakurren bizitza

Angela Sommer-Bodenburg

- **Saltan erregea**

Aleksandr S. Pushkin

- **Negar ez egiteko botika**
David Paloma

- **Urrutiko intxaurrak**

Manu Lopez Gaseni

- **Drakularen etxean**

Bram Stoker

- **Telefonozko ipuinak**

Gianni Rodari

- **Apaiz zaharraren gitarra**
Joan Mari Irigoien

Etorri liburutegira eta
zure gustoko libururen
bat aurkituko duzu zihur.

Joseba Lopez de Armentia

OSKAR

HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 79 71 69

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 79 16 61

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

Bedarreta taberna

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

APIRILA

II
eguakotxa

EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI ITZULIA

Goizeko 11,30ak inguruan pasatuko da Aretxabaletako kaleetatik gorantz. Arratsaldean erlojuaz kontrako proba arratsaldeko 3,30etan hasita Fagoren.

BERTSO JAIALDIA

Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elorza eta Ion Maia bertsolariak Ezkutu tabernan izango ditugu. Gai jartzailea: J. Goikoetxea. Gaueko 11etan.

12
zapatua

ANTZERKIA

Oihulari Klown Bergarako taldeak **"DENA KLOWNTROLPEAN"** antzezlan eskainiko digu. Askagintzak antolatuta eta udaberriko drogo-menpekotasun prebentzio kanpainaren barruan. Ezkutu tabernan arratsaldeko 7,30etan.

BERTSO JAIALDIA

Zumarraga eta Urretxuko Otamotz herri aldizkariaren alde. Bertsolariak: **Amuriza, Iturriaga, Euskitze eta Sarasua.** Zumarragako Beloki pilotalekuan gaueko 10,30etan.

13
domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Elgoibar-Deba-Elgoibar-Aretxabaleta...84 km.

15
martizena

HITZALDIA

Loramendi elkarteko Tril emakume taldeak antolatuta, **Jakoba Errekondok fruitu arbolen** hitzaldia emango du. Loramendiren lokalean arratsaldeko 4etan.

19
zapatua

BIZIRIK EGUNA ARRASATEN

Askagintza, drogomenkotasunaren aurkako taldeak udaberriko kanpainari bukaera emateko hainbat ekintza antolatu ditu. Ekintzak Arrasateko Monterron parke eta udaletxeko plazan izango dira.

Monterron inguruan:

16,00etan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoak, gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak, haur tailerrak...

17,00etan Goloka antzerki taldea.

Malabarak, txokolatada.

18,30etan Koiuntura musika taldea.

19,30etan kalejira, zangoluzeak, trikitilariak, bertsolariak...

20,30etan, bertsolariak: Maialen Lujanbio, Jon Sarasua, Unai Iturriaga eta Unai Elorza.

22,30etan Kontzertua: Ke Rule, Bat Bitten.

Udaletxeko plazan: Ekekei antzerki taldea: "Famantxu Arbolen gerizpean", 21,30etan.



OPEL

■ Kotxe marka guztien
konponketak

■ Zerbitzu guztiak

Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala



Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 79 62 65 • ARETXABALETA

17
eguna**DIAPOSITIBA EMANALDIA**

GAIA: Butan, Sikking (India), Bengala eta Orissara (India). 1996ko udaran egindako ibilaldia. Munduko tribu ezagunenak ezagutzeko aukera. Emalea: **Alberto Etxebarria**. Loramendi elkartearen arratsaldeko 7etan.

Loramendi elkarteak honelako beste emanaldi batzuk emateko asmoa du aurrerantzean, modu honetan herritarren abenturak ezagutu ahal izateko. Beste norbaitek proiektiorik egin nahi izango balu jarri dadila harremanetan Loramendi elkarteaz, 77 09 70 telefonoz.

20
domeka**DIAPOSITIBA EMANALDIA**

Aretxabaleta-Arrasate-Eroski-Epele-Elorrio-Berriz-Trabakua-Markina-Etxebarria-San Migel-Elgoibar-Aretxabaleta...85 km.

DIAPOSITIBA EMANALDIA

Alberto Etxebarriak 1996ko udaran egindako ibilaldiaren diapositiba emanaldia emango du. (Butan, Sikking (India), Bengala eta Orissara. Munduko tribu ezagunenak ezagutzeko aukera. Apirilaren 17an arratsaldeko 7etan Loramendi elkartearen.

23
eguztina**HITZALDIA**

L. M. PANEROren Poesiari buruzko hitzaldia. Hizlariak: **Túa Blesa eta L. M. Panero**. Arrasateko Monterron kultur etxean arratsaldeko 7,00etan.

ikastaroak**LARRAIN DANTZA IKASTAROA**

Apirilean hasi eta San Juanak arte, zapatu arratsaldetan. Prezioa: bazkideak 1000 pezeta, bazkide ez direnak 1.500. Izen ematea Loramendi elkartearen edo 77 09 70 telefonora deituta. Antolatzailea: Tril emakume taldea.

**BEHARREZKO
TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 0970
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA**ITURGINTZA**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

ETXEMOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!